

Asisko gutuna

2023ko abendua

2. printzipioa. Eguneroko bizimodua: barnerantz

182. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunentzako sare sozial irekia da.

Espiritu-gogoaren gauzak kontu serio eta absolutuei lotu zaizkie, baita dramatiko denari ere. Eta, egia esan, fase batzuetan horrelakoak dira. Baina umorea ere hor dago, bizitzako beste arloetan bezala, gauza bakoitzak bere leku egokia izan dezan.

Gogoetarako gaia

Umora puntua

"Bizitza serio hartu behar da" esaldi entzuna da. Eta hala izan behar du gainera. Behin bakarrik bizi behar, eta partida ondo jokatu nahi dugu. Ezin dugu gure existentziaren denbora huskeria eta azalkeketan galdu. Baina egia da, halaber, eman zaigun bizitza bakarra seriotasunez bizi ahal izateko, gauza asko erlatibizatzen ikasi behar dugula. Gauza horiek, lehen kolpean, oso garrantzitsuak iruditzen zaizkigu, eta bizitzan aurrea egin ala ikusten dugu ez direla hain garrantzitsuak. Hainbeste huskerietan murgiltzen garenean, etsipenean erori gaitzke edo kiroltasunez hartu; eta, batez ere, umore sen batekin begiratu baita lotsagorrituko gintuzten gauzak ere: amets megalomanoak, perfekzio-antsiak, inbidia, harrokeriak, geure buruarekiko gezur txikiak, aitortu gabeko geure beharrak... Gure buruaz barre egitera bultzatzen gaituen umore puntu hori da.

Umora hau ez da eszeptikoena, inorengandik ezer espero ez dutenen horiena, ezta itxaropen

oro garraztuko duen umore hori ere. Umora mota honek ez dio giza bizitzari laguntzen, suntsitu egiten du, aldaketa oro deuseztatzen du, ez baitu etorkizunik ikusten, eta iraganak ez du balio izan ezertarako. Horregatik, orainak ez du funtsik. Ez, hau ez da umora sana.

Osasuntsu bizitzen laguntzen digun umora-puntua gure errealitatearen aurrean jartzen gaituen da, gure mugak begi-bistan jartzen dizkiguna, baina maitasunez, gure ezinak onartuz, baita gure kaskarkeriak ere. Gure mugak eta bekatuak ezagutzeko umiltasuna adierazten duen beharrezko umora puntu hori da. Eta, hala ere, etsipenera eramanez beharrean, geure buruarekin eta munduarekin adiskidetzera garamatza.

Jainkoaren begiradak laguntzen digu horretan. Gutaz beste inork ez bezala jakinik, ez gaitu arbuatzen. Harekin eta geure buruarekin adiskidetzen laguntzen digu bere maitasunetik.

Bibliako pasartea: 2Kor 11,16.18.21b-25.30

Berriri diotsuet ez nazazuela zorrotzat har. Edo bestela, uztazue niri ere zoro bezala zertxobait harrotzen. Askok dira giza arrazoi hutsez harrotzen direnak; zergatik ez ni? Besteak ausartzen direnera –badakit zoro bezala ari naizela– ni ere ausartuko naiz. Hebrearrak direla? Bai ni ere. Israeldarrak direla? Bai ni ere. Abrahamen jatorrikoak direla? Bai ni ere. Kristoren zerbitzariak direla? Ni gehiago, nahiz zorakeria izan hori esatea. Haiek baino neke gehiago jasan dut, kartzela gehiago, zigorrak zer esanik ez; hiltzorian ere egona naiz hamaika aldiz. Juduen eskuetatik bost aldiz hogeita hemeretzi zigorrak hartu naiz; hiru aldiz makilatua, behin harrikatua, hiru aldiz hondoratu zen ninderaman itsasontzia eta gau-egun osoa eman nuen itsasoan galdurik. Harrotu behar badut, neure ahuleziaz harrotuko naiz.

Frantziskotar espiritualtasuna

Honela jokatzeko zuen noizik behin: barnean irakiten zuen espirituko doinu txit gozoa, frantsesez adierazten zuen kanpora; eta bere belarriak isilean sumatzen zuen murmurio jainkotiarra frantses kanta alaietan lehertzen zitzaion. Batzuetan, neure begiz ikusia dudanez, makila bat lurretik hartu eta ezkerreko besoaren gainean ipintzen zuen; bitartean, hari batez bihurrituriko makila hartzen zuen eskuinean eta ezkerrekoaren kontra mugitzen zuen, biola joko balu bezala, eta, joaldi guztia keinu egokiz lagundurik, frantsesez kantatzen zion Jaunari. Sarritan festa alaia negar-malkotan amaitzen zen, eta bozkarioa Kristoren nekaldiaren gupida bilakatzen zitzaion. Ondoren, santua hasperen luze eta eten-gabeko intziritan lehertzen zen, eta, esku artean zituen lurreko gauzez ahazturik, zerukoetan murgiltzen zen.

Behin, bere lagunetako bat malenkoniatsu eta kopetilun ikusi zuen eta, hau ez baitzuen ongi eramaten, honela esan zion: «Jainkoaren zerbitzariak ez du triste eta asaldaturik agertu behar besteen aurren, atsegin baizik. Zeure hutsegiteez egin gogoeta zeure gela barruan eta egin negar eta aiene zeure Jainkoaren aurrean. Baina anaien artera itzultzean, utzi tristura eta izan besteen antzeko.

(2Zel 127-128)

Otoitza

Tira, sartu.
Aurrera, tira,
onartu egin behar zaitut.
Zu zara denak joatean etortzen dena.
Denak joatean geratzen dena.
Dena itzaltzean, piztu egiten dena.
Inoiz falta ez dena.
Begira nazazu hemen,
aulki batean eserita.

Denak joaten dira, ia betarik gabe.
Egin ezazu egokitu nadila
beheko gauzei.
Emadazu indiferentzia salbatzailea,
egin mirari bat gehiago,
emadazu irria,
egin nazazu pailazo, Jainkoa, egin nazazu pailazo!

Gloria Fuertes

Gutuneko azken hitzak

“Jainkoa barrez ikusi nahi baduzu, emaiozu zure asmoen berri”

2023ko abenduaren eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Lk 21, 29-33	8 Lk 1, 26-38	15 Mt 11, 16-19	22 Lk 1, 46-56	29 Lk 2, 22-35
2 Lk 21, 34-36	9 Mt 9, 35-10, 1.6-8	16 Mt 17, 10-13	23 Lk 1, 57-66	30 Lk 2, 36-40
3 Mk 13, 33-37	10 Mk 1, 1-8	17 Jn 1, 6-8.19-28	24 Lk 1, 26-38	31 Lk 2, 22-40
4 Mt 8, 5-11	11 Lk 5, 17-26	18 Mt 1, 18-24	25 Jn 1, 1-18	
5 Lk 10, 21-24	12 Mt 18, 12-14	19 Lk 1, 5-25	26 Mt 10, 17-22	
6 Mt 15, 29-37	13 Mt 11, 28-30	20 Lk 1, 26-38	27 Jn 20, 2-8	
7 Mt 7, 21.24-27	14 Mt 11, 11-15	21 Lk 1, 39-45	28 Mt 2, 13-18	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Abenduko otoitza hilaren
28an izango da.